d) La empresa o entidad organizadora dispondrá de los servicios de limpieza de las instalaciones y/o espacios ocupados durante la celebración de las actividades, procediendo a su meticulosa limpieza y desinfección una vez finalizado el período de autorización.

e) Dispondrán de toma de agua de abastecimiento y desagüe a saneamiento en todos los componentes de la actividad que así lo precisen para su adecuado funcionamiento y respetarán las limitaciones preceptivas en cuanto a emisiones sonoras.

Artículo 39.- La celebración de aquellas modalidades de deporte rural vasco que conlleven la utilización, como elemento básico, de animales domésticos, precisarán asimismo, la previa Autorización municipal, ajustándose a las condiciones y requisitos necesarios que reglamentariamente establezca el Gobierno Vasco. En cualquier caso, se observarán las adecuadas condiciones higiénico-sanitarias y de alimentación y especialmente:

- Queda prohibido suministrarles alcohol, drogas o fármacos o practicarles cualquier manipulación artificial que pueda producirles daños físicos o psíquicos, aun cuando sea para aumentar el rendimiento en un competición.

CAPÍTULO III
ESPECTÁCULOS TAURINOS TRADICIONALES

Artículo 40.

1.- Tienen consideración de espectáculos taurinos tradicionales los encierros, la suelta de reses, el toreo de vaquillas, sokamuturras y aquellos de naturaleza similar que no lleven aparejada la realización de suertes sangrientas.

2.- La celebración de espectáculos taurinos tradicionales requerirá la pertinente autorización administrativa, conforme a la regulación que a tal efecto establezca el Gobierno Vasco.

3.- En ningún supuesto se autorizará la celebración de aquellos espectáculos donde las reses sean herida o golpeadas o sean objeto de maltrato.

4.- Ante el incumplimiento ostensible de lo preceptuado en el apartado anterior, se procederá, sin perjuicio de las sanciones a que dichos comportamientos dieran lugar, a su suspensión.

CAPÍTULO IV
DE LOS ANIMALES PARA EXPERIMENTACIÓN
Y OTROS FINES CIENTÍFICOS

Artículo 41.- Los establecimientos de cría, suministro y usuarios de animales para experimentos y otros fines científicos, figurarán inscritos en el Registro Oficial gestionado por el Servicio de Ganadería de la Diputación Foral de Álava, debiendo cumplir las normas establecidas en el Real Decreto 223/1988, de 14 de marzo, atenerse a lo dispuesto por la Orden de 25 de junio de 1991, por la que se dictan normas sobre protección de los animales utilizados para tales fines, y reuniendo las instalaciones las características que la autoridad competente determine.

CAPÍTULO V
DEL TRANSPORTE DE ANIMALES

Artículo 42.

1.- Los animales deberán disponer de espacio suficiente si se les traslada de un lugar a otro. Los medios de transporte o los embala-

liabideak edo enbalajeak animaliak eguraldi txarretik eta klima aldaketa gogorretatik babesteko modukoak izango dira, eta barruan bizirik dauden animaliak daudela adierazi beharko dute. Beharrezko diren segurtasun neurriak hartuko dira haiek garratzeko.

2.- Garraioan, animaliak zaindu egingo dira eta haientzako apropos den jana emango zaie, jatordu batetik bestera tarte egokia utziaz.

3.- Animaliak garraiatzeko erabiliko den lekua higiene eta osasun aldetik ondo egongo da, hau da behar bezala desinsektatuta eta desinfektatuta egongo da.

4.- Edozein modutan Europako Komunitatearen arauak beteko dira, bai eta gai horretan aplikagarri diren nazioarteko itunen ondorioz sortutakoak ere.

5.- Era berean, xedapen zoosanitario orokorrak beteko dira, bai eta epizootiak daudela deklaratzen badira eskumena duten agintariek prebentzio gisa ematen dituzten guztiak ere.

VI. KAPITULUA
ANIMALIA BASATIAK

43. artikulua.- Merkataritza helburuekin animaliak gatibutasunean hazteko baimena duten instalazioetatik datozen animalia autoktonoak eduki, saldu eta erosi, eta haiekin erakusketak egiteko, baimen hori daukatela egiaztatzen duen agiria eduki beharko da.

CITES hitzarmenaren bidez babestutako espezie bada CITES ziurtagiria eduki beharko da.

44. artikulua.- Fauna aloktonoari dagokionez, debekatuta dago animalia horiek, bere arrautza, kume, hedakai edo Europako Komunitatearen xedapenen ondorioz sinatutako Nazioarteko Itunek eta Hitzarmenek babestukotzat hartutako espezieen hondarrak barne, ehizatzea, edukitzea, disekatzea, salerostea, trafikatzea eta haiekin jendaurreko erakusketak egitea.

Aurreko atalean aipatutako lege-arauetan berariaz adierazitako kasuetan bakarrik baimendu ahal izango da animalia hauek edukitzea, salerostea eta beraiekin erakusketa publikoak egitea. Kasu horietan, animalia bakoitzari buruzko ondorengo agiriak eduki beharko dira:

- Sarrerako Nazioarteko Ziurtagiria.

- CITES ziurtagiria, Kanpo Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiak Aduanan emandakoa.

VII. KAPITULUA
ANIMALIA TXIKIEN KONTSULTATEGIAK, KLINIKAK ETA OSPITALEAK

45. artikulua.- Animalia txikien kontsulta klinikoetarako eta animalia horiei osasun tratamenduak aplikatzeko diren anbulatorio izaerako establezimenduak Albaitaritzako Kontsultak, Klinikak eta Ospitaleak izan daitezke.

1. Albaitaritzako Kontsultak dira gutxienez harrera gela bat eta kontsultarako eta sendaketa eta kirurgia lan txikiak egiteko beste gela bat dituzten lokalak.

2. Albaitaritzako klinika: lokal hauek, gutxienez, itxaron gela bat, kontsulta gela bat, kirurgiako ebakuntzetarako gela bat, erradiologiako instalazioak, laborategia eta bizkortze lanetarako aukerak eskainiko dituzte.

3. Albaitaritzako ospitalea: Albaitaritzako Kliniketarako ezarritako baldintzak betetzeaz gain, animaliak ospitaleratuta edukitzeko gela bat izango dute. Gela horretan ospitaleratuta dauden animaliek, gainera, osasun-zaintzako zerbitzua izango dute eguneko 24 orduetan, bai eta laguntza zerbitzu etengabea ere.

46. artikulua.- Establezimendu hauek guztiek udal baimena beharko dute, eta eraikin isolatuetan zein behe solairuetan dauden lonjetan kokatu ahal dira, albaitaritzako ospitaleak izan ezik, horiek ezin izango baitira kokatu etxebizitzetarako diren eraikinetan. Era berean, ezingo dira animalien gordetegietan eta egoitzetan jarri, horien jabea kontsultategien jabea bera ez bada. Kasu horretan, gainera, kontsultategiaren gelek behar bezala bereiztuta egon beharko dute gainontzeko geletatik, ezin izango da establezimendu batetik bestera zuzenean igaro, eta establezimendu biek bete beharko dituzte eskatutako baldintzak.

Animaliaren ilea apaintzeko lanak edota bestelako apaintze lanak (garbiketa, ikuzketa, estetika) eginez gero, bereizturik dagoen lokal batean egingo dira.

Albaitaritzako ospitaleak etxebizitzetatik bereiztuta daudenean bakarrik baimendu ahal izango dira. Gainera, horretarako propio egin den

jes deberán ser concebidos para proteger a los animales de la intemperie y de las diferencias climatológicas acusadas, debiendo llevar estos embalajes la indicación de la presencia de animales vivos. Su traslado se hará con las medidas de seguridad necesarias.

2.- Durante el transporte los animales serán observados y recibirán una alimentación apropiada a intervalos convenientes.

3.- El habitáculo donde se transporten animales deberá mantener unas buenas condiciones higiénico-sanitarias, debiendo estar debidamente desinsectado y desinfectado.

4.- En todo caso se cumplirá la normativa de la Comunidad Europea y la derivada de los tratados internacionales aplicables en la materia.

5.- Asimismo, deberá observar las disposiciones zoosanitarias de carácter general y todas aquellas que, en caso de declaración de epizootias se dicten, y con carácter preventivo, las autoridades competentes.

CAPÍTULO VI
DE LOS ANIMALES SILVESTRES

Artículo 43.- La tenencia, comercio y exhibición de aquellos animales de la fauna autóctona procedentes de instalaciones autorizadas para la cría en cautividad con fines comerciales, requerirá además la posesión del certificado acreditativo de este extremo.

Si se tratara de especie protegida por el Convenio CITES, se requerirá la posesión del certificado CITES.

Artículo 44.- En relación con la fauna autóctona se prohibe la caza, tenencia, disecación, comercio, tráfico y exhibición pública, incluidos los huevos, crías, propágulos o restos de las especies declaradas protegidas por los Tratados y Convenios Internacionales suscritos, por Disposiciones de la Comunidad Europea.

Únicamente podrá permitiese la tenencia, comercio y exhibición pública, en los supuestos expresamente previsto en las normas citadas en el párrafo anterior. En tales casos se deberá poseer, por cada animal, la documentación siguiente:

- Certificado Internacional de Entrada.

- Certificado CITES, expedido por la Aduana por la Dirección General de Comercio Exterior.

CAPÍTULO VII
DE LOS CONSULTORIOS, CLÍNICAS Y HOSPITALES DE PEQUEÑOS ANIMALES

Artículo 45.- Los establecimientos dedicados a consultas clínicas y aplicación de tratamientos sanitarios a pequeños animales con carácter ambulatorio, se clasificarán en Consultorio Veterinario, Clínica Veterinaria y Hospital Veterinario.

1. Consultorio Veterinario es el conjunto de dependencias que comprenden, como mínimo, una sala de recepción y una sala para consulta y pequeñas intervenciones de cura y cirugía.

2. Clínica Veterinaria: es el conjunto de locales que constan como mínimo de una sala de espera, una sala de consulta, una sala reservada para intervenciones quirúrgicas, instalación radiológica, laboratorio y posibilidades de reanimación.

3. Hospital Veterinario: además de las condiciones requeridas para la Clínica Veterinaria, contará con una sala de hospitalización con vigilancia sanitaria asegurada las 24 horas del día y de la atención continuada a los animales hospitalizados.

Artículo 46.- Todos estos establecimientos, requerirán Licencia Municipal, pudiéndose ubicar exclusivamente en edificios aislados o en lonjas situadas en planta baja, excepto los Hospitales Veterinarios, quedando prohibido el ejercicio de esta actividad en edificios destinados a viviendas. Así mismo, no podrán situarse en guarderías ni residencias de animales, salvo que éstas sean propiedad del/de la titular de dichas consultas, estuvieran convenientemente aisladas del resto de las dependencias, sin posibilidad de acceso directo de uno a otro establecimiento y reúnan ambas los requisitos exigidos.

En el caso de efectuarse actividades de peluquería y/o acicalamiento (limpieza, lavado, estética) del animal, éstas requerirán un local separado.

Los Hospitales Veterinarios sólo podrán ser autorizados cuando su emplazamiento se encuentre separado de toda vivienda, edificio

eta itxita dagoen eraikin batean egingo dira, eta nahiko leku libre eta ospitale plaza bakoitzeko 20 metro karratu izango dute.

47. artikulua.- Ekipamenduek eta instalazioek alor horretako arauak beteko dituzte, eta, gainera, honako hau:

a) Lurrak iragazgaitzak eta gogorrak izango dira, eta garbitu ahal izango dira.

b) Paramentu bertikalak axuleiuak izango dituzte, gutxienez lurretik 1,75 metrotan. Gainontzekoa eta sabaiak, berriz, zaindu, garbitu eta desinfektatzeko modukoak izango dira.

c) Edateko ura izango dute, bai hotza bai beroa. Beroaren tenperatura, gutxienez, 80º C izango da.

d) Hondakin organikoak, sendaketetako materiala eta hondar patologikoak ontzi itxietan eta banandurik deuseztatuko dira.

e) Animalien kakak deuseztatzeko zabor poltsa iragazgaitzak erabiliko dira. Zabor poltsa horiek itxi egin beharko dira.

f) Instalazioak, tresnak eta ibilgailuak garbitu, desinfektatu eta desinsektatzeko lanak establezimenduko langileek egingo dituzte sistematikoki, aldiro-aldiro, eta jarduerak berak eskatzen duen maiztasunaz. Hori guztiaz aparte eta urtean behin, gutxienez, lokala ofizialki baimendutako enpresa batek desinfektatu eta desinsektatuko du.

48. artikulua.- Albaitaritzako klinika, kontsultategi edo ospitale bat irekitzeko eta martxan jartzeko ezinbestekoa izango da zuzendaritza teknikoa albaitari profesional kolegiatu baten esku egotea eta establezimenduan egingo diren albaitaritzako jarduera guztiak lanbide horretarako gaitutako kolegiatuek burutzea.

Baimendutako klinikek, kontsultategiek edo ospitaleek artxibategi bat izango dute txertoa jarriko zaien edo derrigorrezko osasun tratamenduren izango duten animalien fitxa teknikoetarako. Bertan identifikazio zenbakia agertuko da. Artxibategi hori eskumena duen agintariaren esku egongo da.

Debekatuta dago merkataritzako establezimenduetan edo haien geletan albaitaritzako kontsultak egitea, noizbehinka, aldizka edo osagarri gisa bada ere, eta bereziki debekatuta egongo da aurrekoa farmaziako bulegoetan, elikagaien establezimenduetan, ostatu edo jatetxeetan, animaliak saltzen diren lokaletan eta bestelako lokaletan egitea.

## IV. TITULUA
## ZIGOR ARAUBIDEA

### I. KAPITULUA
### ARAU-HAUSTEAK

49. artikulua.- Ordenantza honen ondorioetarako arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izango dira. Sailkapen hori egiteko honako hauek hartuko dira kontuan: osasunarentzat dakarren arriskua, arduragabekeri maila, sortutako kaltearen larritasuna eta araua zenbat aldiz hautsi den.

50. artikulua.- Honako hauek izango dira arau-hauste arinak:

a) Ordenantza honek ezarritako betebeharrak ez betetzea, baina higienearen aldetik edota hiritarren segurtasun edota lasaitasunaren aldetik ondorio larririk ez badu.

b) Erroldan identifikaturik ez dauden laguntzako animaliak izatea, erroldako identifikazioa beharrezkoa denean.

c) Animaliak garraiatzea ordenantza honen 9. eta 32. artikuluetan ezarritakoa bete gabe.

d) Animaliak behar bezala zaindu eta artatu ezin diren lekuetan edukitzea.

Hau ez da aplikatuko artaldeak edo obrak zaintzen dituzten txakurren kasuan.

e) Animaliei tratu txarra ematea edo haien izaerari ez dagozkion jarrerak edo jokaerak izatera behartzea.

51. artikulua- Honako hauek izango dira arau-hauste larriak:

a) Animaliei behar duten janarik ez ematea edo higiene eta osasun aldetik gaizki dauden instalazioetan edukitzea.

b) Animaliak esterilizatzea, mutilatzea eta hiltzea albaitariaren kontrolik gabe edo Animalien Babeserako Legean eta lege hori garatzen duten arauetan ezarritakoaren aurka joanda.

c) Txertorik ez jartzea edo derrigorrezko tratamendurik ez ematea.

dedicado al efecto y cerrado, con un mínimo de 20 metros cuadrados por plaza hospitalaria y disponiendo de espacio libre suficiente.

Artículo 47.- Los equipamientos e instalaciones cumplirán las normas sectoriales que las regulan y además:

a) Los suelos serán impermeables, resistentes y lavables.

b) Los parámetros verticales estarán alicatados hasta una altura mínima de 1,75 m. del suelo, siendo el resto y los techos de materiales que permitan su conservación, limpieza y desinfección.

c) Dispondrán de agua potable, fría y caliente a una temperatura mínima de 80º C.

d) La eliminación de residuos orgánicos, material de cura y desechos patológicos se efectuará en recipientes cerrados y estancos.

e) Las posibles deyecciones que los animales realicen se eliminarán en bolsas de basura impermeables y cerradas.

f) Las labores de limpieza, desinfección y desinsectación de las instalaciones, utensilios y vehículos deberán ser efectuadas por el personal del establecimiento de manera sistemática, periódica y con la frecuencia que aconsejen las necesidades de la actividad. Con independencia de ello y una vez al año, como mínimo, el local será objeto de desinfección y desinsectación pro empresa oficialmente autorizada.

Artículo 48.- La apertura y funcionamiento de una clínica, consulta u hospital veterinario, requerirá necesariamente, que la Dirección Técnica la desempeñe un/a profesional veterinario/a colegiado/a, y que todas la actividades veterinarias que se desarrollen en el establecimiento lo sean por colegiados/as habilitados/as para el ejercicio de la profesión.

Las clínicas, consultorios u hospitales autorizados llevarán un archivo con la ficha técnica de los animales objeto de vacunación o tratamiento sanitario obligatorio, donde constará su número de identificación. Dicho archivo estará a disposición de la autoridad competente.

Se prohibe tener ocasional, accesoria o periódicamente consultas veterinarias en establecimientos comerciales o en sus dependencias, especialmente en oficinas de farmacia, establecimientos de alimentación, hostelería o restauración, locales de venta de animales y otros locales.

## TÍTULO IV
## RÉGIMEN SANCIONADOR

### CAPÍTULO I
### DE LAS INFRACCIONES

Artículo 49.- A los efectos de esta ordenanza las infracciones se clasificarán en leves, graves, y muy graves, atendiendo a criterios de riesgo para la salud, grado de negligencia, gravedad del perjuicio producido y reincidencia.

Artículo 50.- Se considerarán infracciones leves:

a) Las inobservancias de las obligaciones de esta Ordenanza que no tengan transcendencia grave para la higiene, y/o seguridad y/o tranquilidad ciudadanas.

b) Poseer animales de compañía sin identificación censal, cuando la misma fuera exigible.

c) El transporte de animales con incumplimiento de lo establecido en los artículos 9 y 32 de la presente ordenanza.

d) La tenencia de animales en lugares donde no pueda ejercerse sobre ellos la adecuada atención y vigilancia.

Este supuesto no será de aplicación a los perros para la vigilancia de rebaños o de obras.

e) Someter a los animales a trato vejatorio o a la realización de comportamientos o actitudes impropias de su condición.

Artículo 51.- Se considerarán infracciones graves.

a) El mantenimiento de los animales sin la alimentación necesaria o en instalaciones indebidas desde el punto de vista higiénico-sanitario.

b) La esterilización, la práctica de mutilaciones y el sacrificio de animales sin control veterinario o en contra de lo establecido en la ley de Protección de los Animales y normas de desarrollo.

c) La no vacunación o la no realización de tratamientos obligatorios.

d) Animaliak baimenik gabe saltzea.

e) Ordenantza honen gai diren animaliak aldi batez edukitzeko, hazteko nahiz saltzeko baldintzak eta Animalien Babeserako urriaren 29ko 6/1993 Legean eta lege hori garatzen duten arauetan ezarritako baldintzak eta betekizunak ez betetzea, horretarako diren establezimenduak.

f) Animaliei tratu txarra eman edo eraso eta, hortaz, beharrik gabe oinazeak eragin edo zauriak edo mutilazioak egitea.

g) Beharrezkoak ez diren oinaze edo kalteak eragin diezazkieketen substantziak ematea animaliei, zuzenean nahiz janarien bitartez.

h) Besteri kalterik egin diezaioketen animaliak dituenak horiek zaindu eta gordetzeko behar besteko ardurarik ez edukitzea.

i) Agerikoak eta larriak diren gaitzak eta minak dituzten animaliei albaitaritzako sorospen egokirik ez ematea.

j) Beharrezko administrazio baimenik ez duten ikuskizunetan parte harraraztea animaliei.

k) Ebazpen irmoa tarteko zigorra jaso duten hiru arau-hauste arin egin izana, zigor espedienteari hasiera eman aurreko bi urteetan.

l) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak garraiatzea ordenantza honen 31. artikuluan ezarritakoa bete gabe.

m) Arriskutsua izan daitekeen animalia eduki edo hazten duenak, haren jabe denak edo harekin harremana duenak animaliari buruzko daturik eta informaziorik eman nahi ez izatea, eskumena duten agintariek edo agintaritza horren agenteek ordenantza honetan ezarritako eginkizunak betetzean halakorik eskatu diotenean, edo informazio okerrik edo faltsurik ematea.

52. artikulua.- Honako hauek izango dira arau-hauste oso larriak:

a) Eraso-ekintzak medio nahiz substantzia toxikoak emanez animaliak akabatzea.

b) Laguntzako edo etxeko animalia bazterrera uztea.

c) Animaliekiko krudelkeria nahiz tratu txarra edo haien oinazea tarteko deneko eszenarik filmatzea.

d) Baimendutako ikuskizunetan parte hartzen duten animaliei anestesiak, drogak edo bestelako gaiak ematea, berezkoa duen portaeraz bestelako helbururik lortzearren.

e) Zakur arraza arriskutsuak haztea nahiz gurutzatzea.

f) Bide eta leku publikoetan janari pozoituak uztea.

g) Debekatutako ikuskizunetan parte harraraztea animaliei.

h) Ebazpen irmoa tarteko zigorra jaso duten hiru arau-hauste larri egin izana, zigor espedienteari hasiera eman aurreko bi urteetan.

i) Arriskutsua izan daitekeen animalia bat, edozein espeziekoa, eta edozein zakur bazterrera uztea. Honakoa izango da bazterrera utzitako animalia bat: alboan pertsonarik ez duen animalia, bere jatorriari edo jabeari buruzko aginduzko identifikazioa eduki ala ez.

j) Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edo animaliak lizentziarik gabe edukitzea.

k) Arriskutsua izan daitekeen txakur edo animalia bat lizentziarik ez duen pertsona bati saltzea edo eskualdatzea.

l) Animaliak trebatzea oldarkorragoa egiteko edo debekatutako helburuetarako.

m) Arriskutsuak izan daitezkeen animalien trebakuntza horretarako gaitasun ziurtagiririk ez duen pertsona baten esku uztea.

n) Animalien oldarkortasuna erakusteko egiten diren lehiaketak, ariketak, erakusketak edo ikuskizunak egiteko arriskutsuak izan daitezkeen animaliak erabiltzea edo haietan parte harraraztea.

## II. KAPITULUA
## ZIGORRAK

53. artikulua.

1) Arauak hausten badira isunak jarriko dira ondoko taulan agertzen denaren arabera:

a) Arau-hauste arinak:

1.- 50 a) artikuluan tipifikatutakoengatik 3,01 euroko isuna jarriko da (TJLTBaren 59. artikulua) 2.- Gainontzeko arau-hauste arinengatik 30,05 eta 300,51 euro bitarteko isunak jarriko dira.

d) La venta de animales no autorizada.

e) El incumplimiento por parte de los establecimientos de las condiciones para el mantenimiento temporal de animales, cría, o venta de los mismos o cualesquiera de los requisitos y condiciones establecidas en la ley 6/1993, de 29 de octubre de Protección de los Animales o en sus normas de desarrollo.

f) Maltratar o agredir a los animales, directamente o a través de los alimentos, sustancias que puedan causarle sufrimiento innecesarios, lesiones o mutilaciones.

g) Suministrar a los animales, directamente o a través de los alimentos, sustancias que puedan causarles sufrimiento o daños innecesarios.

h) No mantener la debida diligencia en la custodia y guarda de animales que puedan causar daños.

i) No prestar a los animales asistencia y veterinaria adecuada ante dolencias o sufrimientos graves y manifiestos.

j) Hacer participar a los animales en espectáculos carentes de la correspondiente autorización administrativa.

k) La comisión de tres infracciones leves, con imposición de sanción por resolución firme, durante los dos años anteriores al inicio del expediente sancionador.

l) El transporte de animales potencialmente peligrosos con vulneración de lo dispuesto en el artículo 31 de esta Ordenanza.

m) La negativa o resistencia del poseedor, criador, propietario o de cualquier otra persona que tenga relación con el animal potencialmente peligroso a suministrar datos o facilitar la información requerida por las autoridades competentes o sus agentes, en orden al cumplimiento de funciones establecidas en esta Ordenanza, así como el suministro de información inexacta o de documentación falsa.

Artículo 52.- Se consideran infracciones muy graves:

a) Causar la muerte a los animales mediante actos de agresión o suministro de sustancias tóxicas.

b) El abandono de un animal doméstico o de compañía.

c) La filmación de escenas con animales para cine o televisión que conlleven crueldad, maltrato o sufrimiento no simulado.

d) Suministrar a los animales que intervengan en espectáculos permitidos anestesias, drogas y otros productos con el fin de conseguir su docilidad, mayor rendimiento físico o cualquier otro fin contrario a su comportamiento natural.

e) La cría o cruce de razas caninas peligrosas.

f) Depositar alimentos emponzonados en vías y espacios públicos.

g) Hacer participar a los animales en espectáculos prohibidos.

h) La comisión de tres infracciones graves, con imposición de sanción por resolución firme, durante los dos años anteriores al inicio del expediente sancionador.

i) Abandonar un animal potencialmente peligroso, de cualquier especie y cualquier perro, entendiéndose por animal abandonado, tanto aquel que vaya preceptivamente identificado, como los que no lleven ninguna identificación sobre su origen o propietario, siempre que no vayan acompañados de persona alguna.

j) Tener perros o animales potencialmente peligrosos sin licencia.

k) Vender o transmitir por cualquier título un perro o animal potencialmente peligroso a quien carezca de licencia.

l) Adiestrar animales para activar su agresividad o para finalidades prohibidas.

m) Adiestrar animales potencialmente peligrosos por quien carezca del certificado de capacitación.

n) La organización o celebración de concursos, ejercicios, exhibiciones o espectáculos de animales potencialmente peligrosos, o su participación en ellos, destinados a demostrar la agresividad de los animales.

## CAPÍTULO II
## DE LAS SANCIONES

Artículo 53.

1) La comisión de infracciones será sancionada con arreglo a lo previsto en el presente cuadro:

a) Las infracciones leves:

1.- Las tipificadas en el artículo50 a) con multa de 3,01 euros (Artículo 59 T.R.R.L.) 2.- El resto de las infracciones leves con multa de 30,05 a 300,51 euros.

b) Arau-hauste larriengatik 300,52 eta 1.502,53 euro bitarteko isuna jarriko da.

c) Arau-hauste oso larriengatik 1.502,54 eta 15.025,30 euro bitarteko isuna jarriko da.

Zigorren zenbatekoak urtero eta automatikoki eguneratuko dira, KPIren arabera, horrek izandako aldakuntza zigorraren aurreko urteko zenbatekoari aplikatuz.

54. artikulua.- Arau-hausteen erantzule izango dira egitez edo ez-egitez arauak hautsi dituztenak, animaliak dituztenak edo animalien jabe direnak edo, kasuan kasu, gertakariak izan diren establezimendu, lokal edo garraiobideen titularrak, eta, azken kasu honetan gainera, garraioaren arduraduna.

55. artikulua.

1) Zigor-ebazpenean arau-haustearen gai izan diren animalien bahiketa aginduko da, baldin eta horien osotasun fisikoa bermatzeko beharrezkoa bada.

Bahitutako animaliak horretarako prestatutako instalazioetan zainduko dira, eta, ahal dela, beste jabe batzuen esku utziko dira. Azken-azkenean, halakorik ezean, akabatu egingo dira.

2) Arau-hauste larriak edo oso larriak eginez gero, instalazio, areto edo establezimenduak aldi baterako ixteko agindua eman ahal izango da, gehienez lau urterako oso larria bada. Animalia gehiago erosteko debekua ere ezarri ahal izango da, gehienez lau urterako.

3) Hiru urtetik beherako epean oso larritzat jotako arau-haustea behin eta berriro egiten bada, administrazioak emandako baimena galdu egingo da.

56. artikulua.- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliei buruzko arauei dagokienez larritzat edo oso larritzat jotako arau-hausteak egiten badira, honakoa egin ahal izango da zigor osagarri gisa: animalia kendu, bahitu, esterilizatu edo hiltzea, establezimendua ixtea, eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko baimena edo trebatzailearen gaitasun ziurtagiria aldi baterako edo betiko indargabetzea.

57. artikulua.

1) Isunak zenbatekoak izango diren nahiz aurreko artikuluaren 2. lerroaldean adierazten diren zigorrek zenbat denboraz iraungo duten zehazteko, ondorengo puntu hauek hartuko dira aintzat:

a) Gizarte nahi osasun mailan izan duen garrantzia eta sortu dituen kalteak.

b) Legez kanpoko irabazteko asmoa eta lortutako onuraren zenbatekoa.

c) Behin eta berriro egin izana.

Arau-haustea behin eta berriro egin dela esaten da administrazio bideko ebazpen irmoaren bidez ordenantza honetan aurreikusten diren zigorretakoren bat lehendik ezarri denean, zigor-espedienteari ekin aurreko bost urteko epean.

d) Arau-haustea leporatzerakoan arau-haustea astunago edo arinago egiten duelako kontuan hartu beharreko beste edozein gorabehera. Horretarako esangura berezia izango du haurren edo ezgaitu psikikoen aurrean animalien aurka erabilitako indarkeria.

2) Analogiaz aplikatuko dira, ahal den neurrian eta ari garen administrazio sektoreko berezitasunek eskatzen dituzten ñabardurekin eta egokitzapenak eginaz, erruduntasun eta zuzenbide kontrakotasunaren salbuespenari buruzko zigor arauak, ondorio berdinetarako sektore horretan beste gorabehera garrantzitsuei erantzuteaz gain.

3) Zenbait arau desberdinetan sailkatutako bi administrazio arau-hauste edo gehiago eratzen dituzten egitate berdin batzuk direnean, zenbateko handiena duen zigorra ezarriko da, eta zigortzeko ahalmena duen organoa izango da espedientea izapidetzeko eta erabakitzeko eskumena izango duena.

4) Era berean, zenbateko handieneko isuna ezarriko da arriskutsuak izan daitezkeen animaliei buruzko arauak hausten direnean eta zigortzeko ahalmena udalaren esku dagoenean.

III. KAPITULUA
ZIGORTZEKO ESKUMENA

58. artikulua

1) Animalien Babesari buruzko urriaren 29ko 6/93 Legean araututakoaren arabera foru organoek zigortzeko eskumena badute ere, ordenantza honen aurkako arau-hausteak udalak zigortuko ditu.

b) Las infracciones graves con multa de 300,52 a 1.502,53 euros.

c) Las infracciones muy graves con multa de 1.502,54 euros a 15.025,30 euros.

Las cuantías de las sanciones será nula y automáticamente actualizadas con arreglo al índice de precios al consumo el cual se aplicará sobre la cuantía de la sanción del año anterior, salvo las previstas en el artículo 43 a) apartado 1.

Artículo 54.- Se considerarán responsables de las infracciones a quienes por acción u omisión hubieren participado en la comisión de las mismas, al propietario o tenedor de los animales o, en su caso, al titular del establecimiento, local o medio de transporte en que se produzcan los hechos, y en este último supuesto, además, al encargado del transporte.

Artículo 55.

1) La resolución sancionadora ordenará el decomiso de los animales objeto de la infracción cuando fuere necesario para garantizar la integridad física del animal.

Los animales decomisados se custodiarán en las instalaciones habilitadas al efecto y serán preferentemente cedidos a terceros, y en última instancia sacrificados.

2) La comisión de infracciones graves y muy graves, podrá comportar la cláusula temporal de las instalaciones, locales o establecimientos respectivos, hasta un máximo de cuatro años para las muy graves, así como la prohibición de adquirir otros animales por un periodo máximo de cuatro años.

3) La reincidencia, en plazo inferior a tres años, en faltas tipificadas como muy graves comportará la pérdida de la autorización administrativa.

Artículo 56.- Las infracciones tipificadas como graves o muy graves en lo referente a animales potencialmente peligrosos, podrán llevar aparejadas como sanciones accesorias la confiscación, decomiso, esterilización o sacrificio de los animales potencialmente peligrosos, la clausura del establecimiento y la suspensión temporal o definitiva de la licencia para tenencia de animales potencialmente peligrosos o del certificado de capacitación de adiestrador.

Artículo 57.

1) Para la graduación de las cuantías de las multas y la determinación del tiempo de duración de las sanciones previstas en el apartado 2 del artículo precedente se tendrán en cuenta las siguientes circunstancias:

a) La trascendencia social o sanitaria y el perjuicio causado por ola infracción cometida.

b) El ánimo de lucro ilícito y la cuantía del beneficio obtenido en la comisión de la infracción.

c) La reiteración en la comisión de infracciones.

Existe reiteración cuando se hubiere impuesto sanción mediante resolución firme en vía administrativa por comisión de una de las infracciones previas en la presente ordenanza en el plazo de cinco años anteriores al inicio del expediente sancionador.

d) Cualquier otra que pueda incidir en el grado de reprochabilidad de la infracción, en un sentido atenuante o agravante. A tal efecto tendrá especial significación la violencia ejercida contra animales en presencia de niños/as o discapacitados/as síquicos/as.

2) Se aplicará analógicamente, en la medida de lo posible y con las matizaciones y adaptaciones que exija la peculiaridad del sector administrativo de que se trata, las reglas penales sobre exclusión de la antijurídica y de la culpabilidad, sin perjuicio de atender, a idénticos efectos, a otras circunstancias relevantes en dicho sector.

3) En el supuesto de que unos mismos hechos sean constitutivos de dos o más infracciones administrativas tipificadas en distintas normas, se impondrá la sanciono de mayor cuantía siendo competente para instruir y resolver el expediente el órgano en quien resida la potestad sancionadora.

4) Así mismo se impondrá la cuantía máxima cuando las infracciones sean referidas a animales potencialmente peligrosos y corresponda el ejercicio de la potestad sancionadora al Ayuntamiento.

CAPÍTULO III
DE LA COMPETENCIA SANCIONADORA

Artículo 58

1) Sin perjuicio de la competencia sancionadora de los órganos forales regulada en la Ley 6/93 de 29 de octubre de protección de los animales, las infracciones a lo dispuesto en esta ordenanza serán sancionadas pro el Ayuntamiento.

2) Indarrean dauden legeek udalari ematen dizkion ahalmenen artean, alkate-lehendakariari dagokio arintzat jotako arau-hausteei buruzko espedienteak irekitzea eta haiei buruzko ebazpena ematea.

3) Udalbatza izango du larritzat jotako arau-hausteak ebazteko eskumena.

4) Oso larritzat jotako arau-hausteak, berriz, eskumen duen foru organoak zigortuko ditu.

IV. KAPITULUA
ZIGOR PROZEDURA

59. artikulua.- Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteei zigorrak jartzeko eta ebazpenen aurka jar daitezkeen errekurtsoak aurkezteko prozedura, administrazio prozedurari buruz indarrean dauden arauek ezartzen dutena izango da.

60. artikulua.

1.- Zigor-espedienteari hasiera eman ondoren, eta beste arauhausterik gerta ez dadin, espedientearen instruktoreak ondorengo galarazpen-neurriak hartu ahal izango ditu, arrazoiak agertuz:

a) Instalazioak, lokala edo establezimenduak ixtea prebentzio gisa.

2.- Galarazpen-neurriei eutsi egingo zaie horiek hartzeko izandako arrazoiek bere horretan dirauteino. Animalien bahitura ezingo da luzatu espedientearen ebazpen irmoaz harantzago, eta prebentziozko itxialdiak ezingo du izan ordenantza honetako 44-2 artikuluan adierazitako epearen erditik gorakoa.

61. artikulua.

1.- Arauak hausteagatik delitua edo falta egiten denean, zigorra jartzeko eskumena duen administrazio organoak gertakarien berri emango dio jurisdikzio penalari, eta zigor prozedura bertan behera utziko du ebazpen judizial irmoa eman arte eta preskripzio aldia ordura arte etenda geldituko da.

2.- Epai agintaritzak ezarritako zehapena betetzen bada, administrazioak ezarritako zigorra ez da bete beharko.

3.- Jurisdikzio penalaren ebazpen irmo baten bitartez erruduntzat hartu den pertsona arau-haustearen erantzule ez dela aitortzen bada, administrazioak zigor espedientearekin aurrera egin ahal izango du, jurisdikzio penalak frogatutako gertakarietan oinarrituta.

4.- Epaitegiek esku-hartu aurretik administrazio espedienteak izapidetzen dituzten agintariek hartutako kautelazko neurriek indarrean jarrai dezakete agintari judizialek gai horri buruz berariaz zerbait adierazi arte.

62. artikulua.

1.-Ordenantza honetan araututako arau-hausteen preskripzioepea honakoa izango da: lau hilabetekoa arinak badira; urtebetekoa larriak badira, eta bi urtekoa oso larriak badira.

2.- Arau-hausteen preskripziorako epea, arau-haustea egiten den egunean hasiko da.

3.- Zigorrek bost urtera preskribituko dute, 3.000,05 eurokoak edo handiagoak badira, eta urtebetera, berriz, 3.000, 05 euro baino gutxiagokoak badira.

4.- Zigorren preskribitzeko epea zigorra jartzen duen erabakiak irmotasuna hartzen duen egunaren biharamunean hasiko da zenbatzen.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabe gelditu dira ordenantza honen aurka doazen bestelako ordenantzak, arautegiak edo udal bandoak.

AZKEN XEDAPENA

Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean udalbatzak ordenantza behin betiko onartzen duela iragarri eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean ordenantza hau.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Izarra, 2004ko maiatzaren 27a.– Alkate-lehendakaria, FCO. JAVIER CARRO IGLESIAS.

2) Será órgano competente par incoar y resolver la comisión de infracciones tipificadas como leves, dentro de las facultades que la legislación vigente atribuye el Ayuntamiento, la Alcaldía-Presidencia.

3) Será órgano competente para resolver las infracciones tipificadas como graves, el Ayuntamiento Pleno.

4) Las infracciones tipificadas como muy graves, serán sancionadas pro el órgano foral competente.

CAPÍTULO IV
DEL PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

Artículo 59.- El procedimiento para la imposición de las sanciones a las infracciones previstas en esta Ordenanza para los recursos que contra las resoluciones puedan interponerse, será el establecido por la normativa de procedimiento administrativo en vigor.

Artículo 60.

1.- Iniciado el expediente sancionador, y con el fin de evitar la comisión de nuevas infracciones, el instructor del expediente podrá adoptar motivadamente las siguientes medidas cautelares:

a) La retirada preventiva de las instalaciones, locales o establecimientos.

2.- Las medidas cautelares durarán mientras persistan las causas que motivaron su adopción, en todo caso, la retirada de animales no podrá prolongarse más allá de la resolución firme del expediente, ni la cláusula exceder de la mitad del plazo establecido en el artículo 44-2º de esta Ordenanza.

Artículo 61.

1.- En los supuestos en que las infracciones pudieran ser constitutivas de delito o falta, el órgano administrativo competente para la imposición de la sanción pondrá los hechos en conocimiento de la jurisdicción penal, absteniéndose de proseguir el procedimiento sancionador mientras no recaiga la resolución judicial firme y quedando hasta entonces interrumpido el plazo de prescripción.

2.- La condena de la autorización judicial excluirá la sanción administrativa.

3.- Cuando la jurisdicción penal declare por resolución judicial firme la inexistencia de responsabilidad penal en el/la inculpado/a, la Administración podrá continuar el expediente sancionador con base, en su caso, en los hechos probados por aquélla.

4.- Las medidas cautelares adoptadas por las autoridades instructoras de los expedientes administrativos antes de la intervención judicial podrán mantenerse en vigor mientras no recaiga pronunciamiento expreso al respecto de las autoridades judiciales.

Artículo 62.

1.- Las infracciones previstas en esta ordenanza prescribirán sin son leves, a los cuatro meses, si son graves, al año y a los dos años en el caso de las muy graves.

2.- El plazo de prescripción de las infracciones se computará desde el día en que se hubieren cometido.

3.- Las sanciones prescribirán a los cinco años cuando su cuantía sea igual o superior a 3.000,05 euros, y al año cuando sea inferior a esta cantidad.

4.- El plazo de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquel en que adquiera firmeza la resolución por la que se impone la sanción.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas Ordenanzas, Reglamentos o Bandos Municipales se opongan a la presente.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava del Acuerdo Plenario de aprobación definitiva.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Izarra, a 27 de mayo de 2004.– El Alcalde-Presidente, FCO. JAVIER CARRO IGLESIAS.

## VITORIA-GASTEIZ

UDALEKO KIROL SAILA

**5.541**

### Iragarkia

Vitoria-Gasteizko Udalak Lehen Hezkuntzako ikasleak dituzten Vitoria-Gasteizko ikastetxeei zuzendutako 2004/2005 IKASTURTEKO "KIROLA, HEZTEKO GIRO ETA BIDE" KANPAINA iragartzen da.

## VITORIA-GASTEIZ

DEPARTAMENTO MUNICIPAL DE DEPORTE

**5.541**

### Anuncio

Se anuncia la campaña "EDUCAR CON Y EN EL DEPORTE" 2004/2005 del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz dirigida a los Centros Escolares de Vitoria-Gasteiz con alumnado en Educación Primaria (E.P).